

TITULARRAK	ADIERAZLEAK		
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%) <small>*aurreko aldia</small>	Azken datuaren data datua
<ul style="list-style-type: none"> Erregistratuko langabeen kopurua mantendu egin da Bilbon, 22.661 izan ziren eta. Bilboko enpresetan afiliatutako langileen kopuruak gora egin du aurreko hilabetearekin alderatuta (% 0,1), eta 182.329 pertsona gehitu dira. Erregistratutako kontratuak % 29,1 handitu dira urte batetik bestera, eta kontratuen % 92 zerbitzuen sektorekoak izan dira. Azalera handietako eta elikagaien kateetako salmentek urte arteko % 5,3ko igoera izan dute. Bilboko jarduera turistikoak gora egin du otsailean, urte arteko terminoetan, bai ostatu-gauean (% 219,9), bai bidaiari-kopuruan (% 214,3). Bizkaiko BPGd-ak urte arteko % 4,8ko gorakada izan du 2021eko laugarren hiruhilekoan (% 5,3 ere bai 2021eko urte osorako). Bilboko aireportuak 212.668 bidaiari erregistratu ditu otsailean. Hau da, urte arteko % 471,7ko gehikuntza egon da. Bilboko Portuak 2,2 milioi tona erregistratu ditu otsailean –% 15,9ko beherakada aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. 	<p>Lan-merkatua</p> <p>Afiliatutako biztanleak (kop.) 182.329</p> <p>Erregistratutako langabeak (kop.) 22.661</p> <p>Erregistratutako kontratuak 12.441</p> <p>Merkataritza</p> <p>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea= oinarria 100) 102,9</p> <p>Turismoa</p> <p>Bidaiarien sarrera (kop.) 53.857</p> <p>Ostatu-gauak (kop.) 92.322</p> <p>Ekonomia</p> <p>Bizkaiko BPGd (2015.urtea= 100 oinarria) 108,9</p> <p>Garraioa</p> <p>Bidaiarien aireko garraioa (kop.) 212.668</p> <p>Salgaien itsas garraioa (milioi tona) 2,2</p>	<p>0,1*</p> <p>0,0*</p> <p>29,1</p> <p>5,3</p> <p>214,3</p> <p>219,9</p> <p>4,8</p> <p>471,7</p> <p>-15,9</p>	<p>ots.</p> <p>ots.</p> <p>ots.</p> <p>ots.</p> <p>ots.</p> <p>ots.</p> <p>2021eko 4. HH</p> <p>ots.</p> <p>ots.</p>

DATU BAT

Urte arteko **% 4,8**
BPGd Bizkaia

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Otsailean, aurreko hilabetearekin alderatuta, ez da aldaketarik egon erregistratutako langabeen kopurua, eta berriz ere egon dira 22.661 langabe udalerrian.

Emakumeen langabeziak gora egin du (% 0,8), eta gizonenak behera egin du (-% 0,9). Nolanahi ere, langabeziak gehiago eragiten die emakumeei.

Gora egin du talderik gazteenean (% 4,8) eta behera gainerako adin-tarteetan: 25-44 urte arteko taldean -% 0,5 eta 45 urte eta gehiagoko tartean -% 0,3.

Sektoreka, Zerbitzuetan baino ez du gora egin (datu absolutuetan, 18 langabe gehiago); behera egin du Industrian, Lehen Sektorean eta Eraikuntzan (60, 14 eta 11 langabe gehiago kasu bakoitzean). Aurrez lanik ez zuen taldean gora egin du, 67 langabe gehiago baititu hilabete honetan.

EAEen, langabeziak -% 0,1 egin du behera. -% 0,8 jaitsi da Gipuzkoan eta -% 0,1 Bizkaian; Araban % 1,0 igo da.

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5), langabeziaren bilakaerak % 0,3ko gorakada izan du aurreko hileko datuen aldean. Madrilen gora egin du langabeen kopuruak (% 0,9) eta Bartzelonan, aldiz, behera (-% 0,3). Gainerako hiriburuetan langabeen kopurua bera da.

Euskal hiriburuaren taldean (G-3) langabeziak % 1,0 egin du gora. Langabeziak gora egin du Gasteizen (% 1,2) eta Iruñean (% 1,8); Donostian, berriz, behera egin du (-% 0,5).

Afiliatutako biztanleak

Bilboko enpresetan afiliatutako biztanleak 182.329 izan dira otsailaren amaieran; hau da, aurreko hilean baino 250 afiliatu gutxiago egon dira (% 0,1 gehiago).

Urte arteko terminoetan, Bilboko enpresek 3.570 enplegu gehiago erregistratu dituzte otsailean, % 2,0.

Araubideen arabera, Araubide Orokorrean 154 lan gehiago daude urtarrilean baino (% 0,1). Langile autonomoen araubide berezian 29 langile irabazi dira, eta 38 etxeko langileen araubidean (% 0,1 eta % 0,6, hurrenez hurren). Gainerako araubide berezietan (nekazaritza eta itsasoa) 29 afiliatu gehiago daude.

Erregistratutako langabeak

Otsaila	22.661 pertsona
	% 0,0 =
Emakumeak	% 0,8 ▲
Gizonak	% 0,9 ▼

Benchmarkina

Bilbo	% 0,0 =
G-5	% 0,3 ▲
G-3	% 1,0 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Afiliatutako biztanleak

Otsaila	182.329 pertsona
	% 0,1 ▲
Araubide orokorra	% 0,1 ▲
Autonomoak	% 0,1 ▲
Etxeko Sistema Berezia	% 0,6 ▲
Beste batzuk	% 4,5 ▲

Euskal Autonomia Erkidegoan afiliatutako biztanleen kopuruak % 0,5 egin gu gora hilabete batetik bestera. Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian ere gora egin du afiliazioak, % 0,9, % 0,5 eta % 0,4 hurrenez hurren.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,5eko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Gora egin du kontuan hartutako hiri guztietan. Bartzelonan eta Valentzian gorakada handiagoa egon da (% 0,7 bi kasuetan).

G-3ko hiriburuetan, batera hartuta, afiliatuen kopurua igo egin da: % 0,7 Gasteizen % 1,3 igo da, Donostian % 0,3 eta Iruñean % 0,4.

Benchmarkina

Bilbo	% 0,1 ▲
G-5	% 0,5 ▲
G-3	% 0,7 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Otsailean 12.441 kontratu formalizatu ziren Bilbon, hau da, % 29,1 gehiago aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (2.804 kontratu gehiago).

2021eko otsailarekin alderatuta, gora egin dute gizon zein a emakumeei egindako kontratuak: 1.216 eta 1.588 gehiago izan dira, hurrenez hurren. Adin-tartean arabera, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokie erregistratutako kontratuen % 50,7 (6.305 kontratu); % 28,5, berriz, 45 urtetik gorakoei (3.542), eta gainerako % 20,9 25 urtetik beherakoei (2.594).

Sektoreen arabera, zerbitzuen sektoreak 2021eko otsailean baino 2.783 kontratu gehiago izan ditu. Igo egin dira industriari (48 gehiago), eta lehen sektorean mantendu dira; eraikuntzan bakarrik jaitsi dira (27 gutxiago). Zerbitzuetan, nabarmenezkoa da, datu absolutuetan, ostalaritzan (1.412 gehiago), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan nahiz garraio eta biltegiaritzetan (416 eta 312 gehiago, hurrenez hurren) izandako kontratuen igoera. Jarduera artistiko eta entretenimendukoetan, administratiboetan, merkataritzan eta etxebizitzetan, gorakadarik handiak egon dira kontratuetan (245, 217, 169 eta 121 gehiago, hurrenker horretan).

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 82,9 izan dira. Otsailean 8.785 pertsona kontratatu dira, eta % 55,7 emakumeak izan dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,42 kontratu.

Erregistratutako kontratuak

Otsaila	12.441 pertsona
	% 29,1 ▲
Emakumeak	% 29,1 ▲
Gizonak	% 29,1 ▲

MERKATARITZA

Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek urte arteko % 5,3ko igoera izan dute otsailean, lan-egutegiko termino homogeneotan. Aurreko hilabeteari dagokionez, salmentak % 0,7 igo dira.

Elikagaien salmentek $-6,2$ egin dute behera 2021eko otsailarekin alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak % 31,2 handitu dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 7,4ko gorakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban ($-4,9$), eta gora Gipuzkoan (% 2,6). EAEn, orokorrean, % 2,9 egin dute gora.

Saltoki handiak Bizkaia

Otsaila	102,9
Salmenta-indizea	% 5,3 ▲
- Elikadura	% 6,2 ▼
- Gainerako produktuak	% 31,2 ▲
Landunak	% 7,4 ▲

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduen sarean 92.322 ostatu-gau erregistratu dira otsailean; hau da, 63.458 ostatu-gau gehiago egon dira aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (% 219,9).

Bidaiarien sarrerak ere antzera egin du gora (% 214,3). Estatuko bidaiarien kopuruak gora egin du, baita atzerritarrena ere.

Estatuko turistak hiribilduko hoteletan ostatu hartutako bidaiari guztien % 72,8 izan dira; Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 24,2), gero EAekoak (% 19,6), Kataluniakoak (% 11,6) eta Andaluziakoak (% 9,0). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: Frantzia (% 30,9), Alemania (% 7,8), Herbehereak (% 5,3), Italia (% 5,1) eta Erresuma Batua (% 5,0).

Okupazio-maila % 35,9 da, eta batez besteko egonaldia 1,71 gaukoa.

Eskuragarri dauden logelen diru-sarrerak % 84,4 handitu dira aurreko urtearekin alderatuta.

Aurten, dagoeneko 163.048 ostatu-gau lortu dira Bilbon; hau da, aurreko urteko epe berean baino % 209,2 gehiago izan dira, 110.321 ostatu-gau gehiago, alegia.

Ostatu-gauak

Otsaila	92.322 ostatu-gau
	% 219,9 ▲

Bidaiarien sarrera

Otsaila	53.857 sarrera
	% 214,3 ▲

Benchmarkinga Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 266,2 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 137,2), Donostian (% 574,1) eta Iruñean (% 133,7).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 399,1eko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Bartzelonan egon da gorakadarik altuena (% 640,5).

Benchmarkinga

Bilbo	% 219,9 ▲
G-5	% 399,1 ▲
G-3	% 266,2 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

EKONOMIA

BPGd

Bizkaiko produktu gordinak urte arteko % 4,8ko gorakada erregistratu du 2021eko laugarren hiruhilekoan. Euskal ekonomian, orokorrean, % 4,7 egin du gora.

Bizkaiko ekonomiak ondoz ondoko sei hiruhilekotan egin du aurrera BPGd-an, hiruhileko arteko terminoetan, 2020ko bigarren hiruhilekoan izandako beherakada handiaren ostean.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a % 0,9 igo da eta, ondorioz, hazkundera txikia izan da aurreko hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta (% 1,4). Bestalde, EAEn hazkundera % 1,3koa izan da.

Euskadi osorako, industriak, eraikuntzak eta zerbitzuek aurrera egin dute hiruhilekoen artean (% 2,1, % 0,9 eta % 1,4, hurrenez hurren). Lehen sektoreak baino ez du atzera egin (-% 16,9).

2021. urteko balantzea. 2021. urtean Bizkaiko BPGd-aren bilakaera positiboa izan da % 5,3 (-% 9,6, 2020an).

EAEko BPGd-a % 5,6 hazi da 2021. urtean (2020an -% 9,9). Sektore handi guztietan erregistratu dira gorakadak: % 1,8 lehen sektorean, % 2,4 eraikuntzan, % 5,0 zerbitzuetan eta -% 8,5 industrian.

Zerbitzuetan, merkataritza, ostalaritza eta garraioaren azpisektoreak % 8,9 gora egin du, eta gauza bera gertatu zaie gainerako zerbitzuetakoei (% 4,1), administrazio publiko, hezkuntza, osasun eta gizarte-zerbitzuei ere (% 2,5).

Barne-produktu gordina Bizkaia

IV. hiruhilekoa

Urte arteko aldakuntza	% 4,8 ▲
Hiruhileko arteko aldakuntza	% 0,9 ▲

Hiruhilekoko BPGd-a (milioi €)	10.161,65
---------------------------------------	-----------

Barne-produktu gordina Bizkaia

2021

Urte arteko aldakuntza	% 5,3 ▲
-------------------------------	---------

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 212.668 bidaiari erregistratu ditu otsailean; beraz, urte arteko % 471,7ko igoera izan du (2021eko otsailean baino 175.470 bidaiari gehiago).

Datu absolutuetan, gora egin du estatuko bidaiarien kopuruak; zehazki, iaz baino 130.010 gehiago daude. Gora egin dute, halaber, nazioarteko hegaldietako bidaiariak (45.235 gehiago), eta, gainera, ehunekoari erreparatuz gero, hobeto suspertu da kopurua.

Egindako hegaldien kopurua, helduerak eta irteerak batuta, 2.224 hegaldikoa izan da otsailean. Garraiatutako salgaien kopurua 44.239 kg izan da.

Aurten, dagoeneko 395.809 bidaiari lortu dira Bilbon; hau da, aurreko urteko epe berean baino % 317,8 gehiago izan dira, 301.072 bidaiari gehiago, alegia.

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), 4.560.059 bidaiari gehiago zenbatu dira 2021eko otsailarekin alderatuta. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gorakada handia izan du.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, 30.022 bidaiari gehiago egon dira. Hiru aireportuetan, halaber, gorakada garrantzitsuak egon dira bidaiarien kopuruan.

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 2,2 milioi tonako trafikoa izan zuen otsailean, hau da, -% 15,9 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan otsailean kudeatutako salgaien % 53,8 izan da urtarilean, eta urte arteko -% 27,7ko jaitsiera izan du. Bestalde, solteko salgai solidoen trafikoak ere behera egin du (-% 4,2) eta salgai orokorrenak, aldiz, gora (% 8,3).

Bidaiarien itsas garraioan, 1.593 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran.

Otsailean ez da itsas bidaiei lotutako turismo-jarduerarik erregistratu.

Aurten, dagoeneko 4,7 tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko epe berean baino -% 8,9 gutxiago.

Aireko garraioa

Otsaila	212.668 bidaiari
	% 471,7 ▲
	2.224 hegaldiak
	% 230,0 ▲

Benchmarkinga

Bilbo	% 471,7 ▲
G-5	% 405,5 ▲
G-3	% 354,8 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Itsas garraioa Otsaila

Portuko trafikoa	2,2 milioi tona
	% 15,9 ▼
Bidaiariak	1.593 bidaiari
	% 67,5 ▲

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	22.661	0,0*	2022ko ots.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	182.329	0,1*	2022ko ots.
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	12.441	29,1	2022ko ots.
Biztanleria aktiboa (milakotan)	176,3	4,6*	2021eko 4 HH
Biztanleria landuna (milakotan)	158,3	4,6*	2021eko 4 HH
Langabeak (milakotan)	18,0	4,0*	2021eko 4 HH
BAIko langabezia-tasa (%)	10,20	-0,08p.p.*	2021eko 4 HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	104,3	7,5	2022ko ots.
Afiliatutako pertsonak**	19.753	1,6*	2021eko 4 HH
Txikizkako merkataritzako salmenta (indizea)***	117,0	3,2	2021eko 4 HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	102,9	5,3	2022ko ots.
Turismoa			
Bidaarien sarrera	53.857	214,3	2022ko ots.
Ostatu-gauak	92.322	219,9	2022ko ots.
Hoteletako okupazio-maila(%)	35,9	19.5p.p.	2022ko ots.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako, RevPar (€)	30,1	84,4	2022ko ots.
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BGPd	108,9	4,8	2021eko 4 HH
Industria ekoizpena (indizea)***	109,9	8,4	2022ko urt.
Merkataritzako sozietate berriak	173	-10,4	2021eko 4 HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	110,2	12,8	2021eko 4 HH
Garraioa			
Bidaarien aireko garraioa	212.668	471,7	2022ko ots.
Hegaldiak	2.224	230,0	2022ko ots.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan) tona	2,2	-15,9	2022ko ots.

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan *** Bizkaia dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Afiliatutako biztanleak



Saltoki handiak eta elikagaien kateak



Hoteletako ostatu-gauak



Bizkaiko BPGd-a



Aireportuko bidaiariak

